

1. Dominoan, zenbaki berbera errepikatuta duten fitzak (bosteko bikoitza, adibidez) ez dira besteak bezala ipintzen mahai gainean. Nola esan behar dugu: **trabes ipini** ala **trabesean ipini**?
2. Partida amaitu eta gero, kutxan banan-banan sartu behar dira polito. Gogoan dut lagun baten baserrian, egur-mukurrak kontuz-kontuz bata bestearen gainean ipintzen ibili ginela. Hasi aurretik, lagunak esan zidan mukurrak ondo *tolostute* ipini behar genituela; hau da, maila batekoak zuzen, eta, gainekoak, trabes. Zuzena litzateke esatea domino-fitzak kutxan ondo **tolestuta** gorde behar direla?
3. Kutxatik fitzak ateratzeko, buruz behera ipintzen dugu kutxa. Zuzena da **irauli** aditza ekintza horretarako?
4. Ipintzeko fitzarik ez baduzu, nola esan gero: **multzotik hartzeko?**; **pilotik hartzeko?** Karta-jokoetan, ostera, kartak bata bestearen gainean ondo daude ipinita. Karta-jokoetan, **multzotik hartu** esan behar dugu?
5. *Siempre no se puede ganar*: **beti ez dago irabazle irteterik / beti ezin daiteke irabazle irten.**
6. Gure etxean, inoiz zera entzuten da: "Zure esana eta atso zaharraren putza, nintzatzako dena da hutsa". Gaztelaniaz, *me la suda lo que digas*? Nola eman euskaraz esapide hori? Kontua da laburra eta lotsa txarreko berba izan behar duela.

1/ **trabesean/trabesean ipini; trabes/trabes ipini; trabeska/trabeska ipini.**

Hiru formek dute esanahi berbera, eta hirurak erabiltzen dira. Beste alde batetik, esan behar da **trabes** hitzak *bizk.* marka duela Euskaltzaindiaren Hiztegian; **trabes** hitzak, ordea, ez du markarik, eta hedatuago omen dago Euskal Herrian barrena.

2/ **Bai**, oso zuzena da, izan ere.

[Euskaltzaindiaren Hiztegiak](#) azaltzen duenez, **tolestu** hitzaren esanahietako bat hauxe da:

3 du ad. Behar bezala antolaturik jarri.

Adibide modura, Orotariko Euskal Hiztegiko hau aukeratu dugu:

*"Ondo tolostu ezian, etxatzue kapiduko traste guzti orrek kotxian "*

3/ **Bai.**

Hala definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak **irauli** aditza:

1 da/du ad. Goiko alde edo zatia beheko alde edo zati bihurtzen dela jarri, azpikoz gora jarri.

*Txalupa irauli. Larraineko garia irauli. Azienden azpiak irauli. Goldez lurra irauli. Lurrak erein aitzinean behar dira ongarritu eta irauli. Hilarria irauli zuen. Mahaiak eta aulkiak irauliz. Beribil zahar bat ipurdiz gora irauli dute eta beste bi sutan jarri.*

Hala ere, iruditzen zaigu naturalagoa-edo dela **buelta eman** esapidea jokoan testuinguru informalean.

4/ **pilotik/pilatik hartu** edo **mordotik hartu**.

**Pilo/pila** hitzak multzo esan nahi du, baina konnotazioa du delako multzoa antolamendurik gabekoa dela. Beste alde batetik, **mordok** ere badu konnotazio hori, eta, gainera, multzo handia adierazten du. Biak iruditzen zaizkigu egokiak domino-fitxen multzoa zehatzago adierazteko.

Karta-jokoari dagokionez, **karta-sorta**, **karta-piloa/pila** edo, zuzenean, **kartak** erabiltzen da. Hortaz, (karta-)**sortatik hartu**, (karta-)**pilotik/pilatik hartu** edo **hartu (beste) karta bat** erabiliko genituzke guk.

5/ **Biak dira egokiak.**

6/ Ez dago “me la suda” horren ordain zuzen-zuzenik, baina bai hurbiltzen zaionik. Gaztelaniazkoa jatorrizko “me suda la p\*\*\*\*a” esapide zantar –baina espresibo– horren laburtzapena da, eta euskaraz ere berdin jokatzen dugu esapideren batean:

niri bost axola zait > niri bost!  
zazpi ontza inporta dit > zazpi ontza!

Ohikoa da, hizkuntza guztietan, espresibitatearen mesedetan gauzak laburtzea (edo luzatzea) esalearen helburuaren arabera. Beraz, ez dugu arazorik ikusten emandiguzun atsotitza laburtzeko:

zure esana eta atso zaharraren putza, nitzako dana da hutsa >  
hori eta putza, hutsa! / hori eta putza, niretzat hutsa!